



AEN-REN HISTORIA ATALAREN  
X. JARDUNALDIAK  
*Neuropsikiatriko Espainiako Elkarte (AEN),  
Osasun Mentalaren Profesionalak*  
**OSASUN MENTALAREN HISTORIAK  
GARAI BERRI BATERAKO**  
DONOSTIA, 2015eko AZAROAK 19, 20 eta 21

## **INFORMAZIO DOSIERRA**

2015eko azaroaren 19an, 20an eta 21ean

### **Antolatzaileak:**

Neuropsikiatriko Espainiako Elkarte-Osasun Mentalaren Profesionalak (AEN)

OME (Osasun Mentalaren Elkarte), edo Euskadiko eta Nafarroako Osasun Mentaleko eta Psikiatriko Elkarte Komunitarioa



## Aurkezteko gutuna

Lagun maiteok:

Osasun Mentalaren Elkarteak (OME) AENren Historia Atalaren X. Jardunaldietan parte hartzera gonbidatzen dizue. Donostian egingo dira 2015eko azaroaren 19an, 20an eta 21ean, *Osasun mentalaren historiak garai berri baterako* lemapean.

Gure erronkari aldaketa-nahasmenen eta krisi soziokulturalen, ekonomikoen, politikoen eta sanitarioen artean egin behar diogu aurre. Hala ere, paradoxikoki, horrek gure grina gero eta handiagoa izatea eragin du. Jardunaldi hauek jakinarazi dizkiguten utopiak kontu handiz zaintzen ditugun osasun mentalaren profesional guztientzako topagune atsegina eta hartzaile kopuruaren aldetik arrakasta handia izateko jartzen ari garen ilusioa helarazi nahi dizuegu.

Jardunaldien irudi gisa hautatu dugun Jorge Oteizaren *Eraikuntza hutsa* eskulturak bezala, memoriaren hutsunea gure esaldiekin bete nahi dugu, ez denak behar duen protagonismoa har dezan, eta testu zatiekin, osasun mentalerako garai berria sortu nahi dugu.

Jaso ezazue agur bero bat.

**M<sup>a</sup> Luisa Sánchez Álvarez- Castellanos**

Batzorde Antolatzailearen koordinatzailea



## Nor gara?

Neuropsikiatriako Espainiako Elkarte-Osasun Mentalaren Profesionalak (AEN) 1924. urtean, Espainiako psikiatriaren unerik bikainenetako batean, interes zientifikoa eta laguntzeko interesa batu zituzten psikiatra-talde baten lana egituratzeko sortutako elkarte da.

Hainbat arlotako profesionalen elkarte da, irabazi asmorik gabekoa, eta osasun mentalaren arloko zientzien garapen etiko-zientifikoa du helburu, desoreka mentalak dituzten pertsonen prebentzioa, tratamendua, zaintzak, errehabilitazioa eta gizarteratzea hobetzeko eta haien eta beren senideen eskubideak babesteko. Helburuek gizartearekin hartutako konpromisoa; administrazioekiko, alderdi politikoekiko eta industria farmazeutikoarekiko independentzia; diziplina aniztasuna; arreta eredu publiko eta parte hartzailea eta praktikari lotutako prestakuntza eta ikerketa hartzen dute barne.

AENek bere eta beste erakunde batzuen ekoizpen zientifikoa eta lan instituzionala aldizkako argitalpenen (aldizkariak, koadernoak, etab.), dokumentuen, txostenen eta bestelakoen bidez zabaltzen du.

AEN hainbat elkartetako kide da, hain zuzen ere: Psikiatriaren Munduko Elkartearena (WPA), Errehabilitazio Psikosoziako Munduko Elkartearena (WARP), Osasun Mentalaren Europako Elkartearena (SME-MHE), *Santé Mentale e Exclusion Sociale* elkartearena (SMES- Europa), Psikiatriaren Europako Elkartearena (EPA), Osasun Mentalaren Munduko Federazioarena (WFMH) eta Errehabilitazio Psikosoziako Elkartearen Espainiako Federazioarena (FEARP). Mediku Espezialisten Europako Batasunaren (UEMS) psikiatriako eta psikologia klinikoko batzordeetan eta psikiatriako sailean ordezkariak ditu. Castilla del Pino fundazioarekin, Eskizofrenia eta bestelako psikosiak ikertzeko eta tratatzeko fundazioarekin, hainbat unibertsitatekin eta autonomia mailako erakundeekin lankidetzat hitzarmenak sinatu ditu.

AENek arretaren, antolaketaren, kudeaketaren eta kalitatearen, desoreka mentalen prebentzioaren eta osasun mentalaren promozioaren alderdiei buruzko jardunbide egokien datu-base bat du.

Elkarte autonomikoen bidez, proposamenen eta eskaeren berri emateko eragile egokia izan nahi du.

OME (Osasun Mentalaren Elkarte), edo Euskadiko eta Nafarroako Osasun Mentaleko eta Psikiatriako Elkarte Komunitarioa, 1986an sortu zuten, eta AENen barruan gobernu-batzorde propioa eta funtzionatzeko autonomia ditu. Gaur egun berrehun eta laurogei bazkide ditu.

OMEk osasunaren arlo publikoan gaixo mentalen arretaren kalitatea bultzatzeko, osasun mentalari buruzko prestakuntza bermatzeko eta proiektuak, jarduerak eta ikerketa dibulgatzeko konpromisoak hartu ditu. Elkarte-bizitza gehitzeko eta bazkide profesional gehiago lortzeko, hainbat jarduera, topaketa eta bilera antolatu ditu eta lantaldeak sortu ditu. Proposamenak eta ikerketak hedatzeko, argitaletxe bat sortu du, eta hainbat modalitatetako argitalpenak kaleratzen ditu aldizka.



## Zer esan nahi dute jardunaldiek?

AENek eduki zehatzak biltzeko atalak sortu ditu bere ibilbide osoan. AENren psikiatriaren historiarekiko interesa agerikoa zen jada bere aldizkariaren lehen zenbakian, 1981ko urtarrilean argitaratutakoan. Hala, hemeroteca izeneko atala sortu zuten.

1987an, AENren aldizkariaren 21. zenbakian, psikiatriaren eta psikoanalisiaren historiari buruzko atala argitaratu zuten ofizialki lehen aldiz.

AENren Historiari buruzko I. Jardunaldi Nazionalak Oviedon egin zituzten, 1995ean. Horietan, Francesc Tosquelles doktorea omendu zuten. Víctor Aparicio doktorearen proposamenez, bazkide batzarrak Antonio Rey González Historiako Sailaren presidente izendatu zuten eta Enrique Jordá Moscardó, idazkari. Orduz geroztik, sail horrek jardunaldiak antolatu ditu bi urtean behin (salbuespen batzuekin).

2008an Tarragonan egindako VII. jardunaldietan, Olga Villasante Armas izendatu zuten presidente, eta Ana Conseglieri Gámez, idazkari. Gaur egun oraindik kargu horiei eusten diete.

AENren Historiako Sailak psikiatriaren eta gizakien jarrera ikertzen duten diziplinen gaineko hausnarketa historikoa egin nahi du eta, psikiatriaren eta antzeko zientzien historia garatzen eta ezartzen laguntzea. Diziplina honi ikuspegi zabal batetik begiratzuz gero oso aberatsa da, eta helburua analisiak eta kritikak horrekin lotutako alderdi guztiak biltzea da. Historiak arazoak planteatu behar ditu. Horregatik, jardunaldietan psikiatriako profesionalak ez ezik, psikologiakoak, antropologiakoak, historiakoak, soziologiakoak, filosofiakoak eta abarrekoak bilduko dira.

## Helburuak eta kokalekuaren balio erantsia

Honako hauek dira jardunaldiaren helburuak:

- osasun mentalaren zientzien, psikiatriaren eta psikologiaren iraganeko esperientziei buruzko ezagutza berriak jakinaraztea; baina ez eztabaiden, eskolen, joeren eta esperientzia praktikoen bidez soilik. Desoreka mentalak dituzten pertsonak egokiago artatzeko ikuspegi garaikideak ere azalduko dituzte.
- Gaixotasun mentalei lotutako gizarte-fenomenoen historia ikertzeko iturriei buruzko ezagutzak zabaltzea, osasun mentaleko profesionalen etengabeko prestakuntzan laguntzen den bitartean. Eta etorkizuneko profesionalen belaunaldiak prestatzen laguntzea, interesa, motibazioa eta ezagutzaren garapena eraginez.
- AENek eta OMEk uste dute garrantzitsua dela osasun mentalaren arloan ibilbide luzea egin duten profesionalak eta belaunaldi berriek azalpenetan eta eztabaidetan bat egitea, sorkari zientifiko berriak egungo beharretara sormenez eta berrikuntzaz egokitzeko. Garrantzitsua da diziplina horietako ikerketen eta arazoenguruko hausnarketa eta eztabaida bultzatzea.
- Ezagutzak, erronkak eta hurrengo topaketak edota jarduera akademiko-zientifikoak lotzeko kontaktu-sarea sortzea. Trukerako eta integrazio kulturalerako, akademikorako eta zientifikorako gunea ahalbidetzea eta ematea.



- Herritarrei psikiatriaren eta psikologiaren historiari buruzko alderdiak jakinaraztea, nazioarteko hausnarketan eta askotariko hizlari adituen talde zabalaren bidez. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu dokumentuen ondarearen berri ematea. Hala, herritarrek beren hiriko pertsonaia ospetsuak ezagutu ahalko dituzte hedabideen edo saio irekien bitartez, esaterako Luis Martín Santos (iaz haren heriotza goiztiarraren berrogeita hamargarren urteurrena izan zen) edota mendekotasunei aurre egiteko familien eta profesionalen taldeetan oinarrituta Gipuzkoan osasun mentaleko baliabideak sortu zituen mugimendu soziala. Halaber, Donostia arlo kulturalerako drogen arazoaren jatorrietako bat dela ikasi ahalko dute, joan den mendearan hasieran neutralitatea, aristokrazia toxikomanoa eta presio mediatikoa batzen zituzten fenomenoetan izandako eginkizunagatik.

Laburbilduz, jardunaldi hauen helburua historia berraztertzea da, osasun mentalaren profesionalak eta erabiltzaileek oraindik dituzten kezken bilduma egiteko, eztabaidatzeko, hausnartzeko eta ikerketako-bide berriak imajinatzeko.

Horretarako, hainbat diziplinetako mahai interesgarriak osatuko ditugu:

Pazienteek leku berezia izango dute *Gaixotasun mentala duten pertsonen sortutako aldizkako argitalpenak* mahaian. Haien ahotsek hunkitu egingo gaituzte eta gure jarduerari buruzko hausnarketa eragingo dute.

Emakumeek psikiatrian izan duten ezinbesteko egitekoa mahai inguru batean landuko da; hain justu, *Cuerpo, género y locura*.

*¿Abordamos los traumas emocionales que genera la historia?* Hala isiltasuna erabiliko dugu ohiko erantzun gisa, zauriak belaunaldiz belaunaldiz transmititzen laguntzeko.

*Osasun mentalaren historiak garai berri baterako* izenburua hautatu dugu. Eta galdera hau ekarri digu burura: Non gaude? Aurten, hogeita hamar urte bete dira Osasun Mentaleko Batzordeak *psikiatriaren erreforma ekarri zuen legerako* dokumentua idatzi zuenetik. Horren ildo nagusiek ohiko laguntza psikiatrikoa eraldatu zuten, eredu komunitario eta desinstituzionalizatzailea sortzeko eta osasun sistema orokorrean txertatzeko. Lortu ditugun proposatu genituen helburuak?

Jardunaldiak hartuko dituen hiriari balioa emateko, herritarrei irekitako hiru ekitaldi antolatuko ditugu gutxienez, Donostiarekin lotura estua dutenak:

- Luis Martín Santosen omenezko hitzaldia: *Ez da isilik geratzeko sasoia*.

Luis Martín Santos psikiatra, idazlea eta politikaria izan zen. Larachen (Espainiaren Marokoko protektoratuan) jaio zen 1924. Handik bost urtera, mediku militarra zen aitari destinoa aldati zioten eta familia Donostiara etorri zen bizitzera. 1951ko apirilean, Gipuzkoako probintziako



psikiatrikoko zuzendari-lanpostua lortu zuen oposizioz, eta Donostiako bizitzara itzuli zen behin betiko. Ideia sozialistak izateagatik nabarmendu zen. 1950eko eta 1960ko hamarkadetan ezkutuan zegoen PSOEn propaganda egiteagatik atxilotu zuten. Medikuntzan ez ezik, literaturan ere aritu zen. Martín Santosen *Tiempo de silencio* eleberria XX. mendeko onenetako bat kontsideratzen da. Gasteizen hil zen 1964an.

Ekitaldi horretan, Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuko langile sanitarioek eta ez sanitarioek osatutako *Kantakidetza* abesbatzak hartuko du parte. Halaber, Martín Santos saria banatuko dugu.

- *Una cita con Strindberg* antzezlanaren emanaldia, DSS2016ren egoitzan. Justi Larrinaga eta Gurutze Beitia aktore ezagunek hartuko dute parte.

August Strindberg (Stockholm, 1849-1912) maisua, aktorea, kazetaria, liburuzaina, telegrafista, poeta, margolaria, dramaturgoa, argazkilaria, alkimista eta abar izan zen. Eskizofrenikoa, probokatzaila, ameslaria, oinazetsua, kontraesankorra, neurrigabea, jatorra eta beharrezkoa. *Ez dut idazten poeta dei nazaten, borrokatzeko baizik* (A.S.).

Eta Juan Carlos Usó k emango du azken hitzaldia: *San Sebastián: neutralidad, aristócratas toxicómanos y presión mediática (1914-1918). Orígenes del problema de drogas en el entorno cultural*.

Halaber, euskarak bere lekua izango du erakusketetan eta jardunaldiko dokumentazioan.

## Irudi grafikoa

Jorge Oteizaren *Eraikuntza hutsa* hautatu dugu, gure herriko kulturaren adierazgarri den artistaren lan eder bat izateaz gain, itsasoaren aurrean kokatuta dagoelako, hiriaren sinbolo desafiataile gisa. Sao Pauloko 1957ko Bienalean saritu zuten, *Eraikuntza hutsa lau unitate lauekin, negatibo-positiboan*. Ondoren, Donostiako Udalak erosi zuen eta 2002ko urrian Pasealeku berrian instalatu zuen.

Jorge Oteiza (Orio, 1908-Donostia, 2003) XX. mendeko artistarik garrantzitsuenetako bat izan zen. Formen desokupazioaren eta eskulturen hustearen bidez, estetikaren esperimentazioan oinarritutako ibilbide eskultorikoa egin zuen. Oteizaren lanen oihartzuna 1950eko hamarkadatik gaur egun arte iraun du, eskulturan, poesian, estetikari, zineman, antropologian, hezkuntzan eta politikan.

Oteizaren ibilbide artistikoa eta pertsonala halo mistiko batek inguratu zituen beti, ameslaria eta iskanbilatsua zelako.

[Jorge Oteiza: Eraikuntza Hutsa](#)



## Tokia

Donostia, Gipuzkoako hiriburua, Kantauri itsasoari begira bizi da. 180.000 biztanle inguru ditu eta izaera kosmopolita eta giza-neurria ditu ezaugarri. Gabriel Celayak hiri ireki eta atsegin gisa definitu zuen: *Bere burua beti harresietatik aske nahi izan duena, edozer onartzeko prest; alferrik bada ere, ederra*. Batzuen ustez munduko hiririk ederrenetako bat da.

Kontxako badiaren inguruan hedatzen da hiria. Santa Klara uharteak babesten du olatuetatik, eta Urgull eta Igeldo mendiek besarkatzen dute. Kontxako hondartzarekin batera, Zurriolakoa eta Ondarretakoa ditu. Hirurek herritarrek hiru hondartzetako ibilbidea deitzen dutena osatzen dute. Kursaalaren beirazko bi kuboeak, eta etengabe hizketan ari direla diruditen Chillidaren *Haizearen orraziak* eta Oteizaren *Eraikuntza hutsak* abangoardiako irudia ematen diote ingurune klasiko eta dotore honi.

Gainera, Donostia kultura-, turismo-, zerbitzu- eta gastronomia-gune da. Gipuzkoak hamasei Michelin izar biltzen ditu, batzuk Donostian, baita beste sari gastronomiko batzuk ere. Donostiako jarduera kulturala bizia da, biztanleko eta eguneko munduko bizienetakoa. Askotariko proposamenak aurki daitezke, ekintza txikiak zein nazioarteko ekitaldi handiak, esaterako, Jazzaldia, Musika Hamabostaldia, Zinemaldia, Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea eta bestelako jaialdi ospetsuak. Gainera, kultura-ekipamendu ugari dituen, bestelako ekitaldiak ere izaten dira. Horregatik, Donostia esperientzien laborategia da, eta 2012ko maiatzean 2016ko Europako Kultura Hiriburu izendatu zuten:

[www.sansebastianturismo.com/eu/](http://www.sansebastianturismo.com/eu/)

## Egoitza

Jardunaldien egoitza San Telmo Museoa izango da, bere ondare aberatsagatik eta ibilbide intelektualagatik.

XVI. mendeko eraikina Alde Zaharrea dago. Domingotarren komentua zen, eta goitik behera eraberritu dute. Ondorioz, obra arkitektoniko garaikidea sortu dute, Euskal Gizartearen eta Herritarren Museo bihurtzeko. Berritze-lanekin diziplina anitzeko alderdi berria eman diote, eta bildumei ikuspegi garaikidea gehitu die. Aldi baterako eta behin betiko bilduma eta zentro interaktiboko eta interpretazioko laborategia ez ezik, askotariko jardueren eta ekitaldien egoitza ere bada.

Museoak kokapen ezin hobea du, hiriaren erdian, eta espazio bikainak eta atseginak ditu.

Hiriguneko kale asko oinezkoentzako jarrita daude, zirkulazioa eta aparkalekuak mugatzeko, oinezkoak ahalduntzeko eta ingurumeneko kutsadura mailak txikitzeko. Museotik gertu aparkaleku publikoak egon arren, oinez joatea gomendatzen da (hiria erraz egin daiteke oinez) baita bizikletaz (bidegorrien sare zabala, bizikletetarako aparkaleku ugari eta bizikletak alokatzeko aukera daude) edota garraiobide publiko eraginkorrez ere.

[www.santelmomuseoa.com](http://www.santelmomuseoa.com)



## Amaierako afaria

Amaierako afaria azaroaren 20an, ostirala, egingo dugu, Gastronomiazko Euskal Anaiartean. Trinitate enparantza. Alde Zaharra. Donostia

Esteka: <http://www.gastronomica.com/>

Gastronomiazko Euskal Anaiarteak egoitza bat du Donostiako Alde Zaharrean, bazkideek sukaldeaz eta mahai-inguruaz gozatzeko, Euskal Herriko ohitura diren elkarteetan bezala.

Elkarte gastronomikoak Donostiako bizitza sozialaren ardatz garrantzitsu dira. Bazkideak elkarteetan bazkaltzeko edo afaltzeko biltzen dira, gainerako bazkideekin, senideekin edo gonbidatuekin. Baina bazkideentzako topagune izateaz gain, elkarteek hiriko bizitza sozialerako garrantzitsuak diren jarduera kulturalak ere antolatzen dituzte.

## Batzordeak

### Batzorde antolatzailea

- Koordinatzailea: **M<sup>a</sup> Luisa Sánchez**. Psikiatra. Osakidetza. Osasun Mentalaren Elkarteko Zuzendaritza Batzordearen. Donostia.
- Batzordeko kideak:
  - **Lolo Aparicio**. Psikologoa. Osakidetza. Donostia.
  - **Silvia Esteban**. Psikologoa. Donostia.
  - **Patricia Insúa**. Psikologo klinikoa. EHUko Psikologia Aplikatuaren Zerbitzuko zuzendaria eta Psikologia Fakultateko irakaslea. Osasun Mentalaren Elkarteko Zuzendaritza Batzordearen. Donostia.
  - **Aintzane Intxausti**. Psikiatra. Osakidetza. Donostia.
  - **Lourdes Jiménez**. Psikiatriako begiralea Nahasmendu Mental Larriko Egoitza Unitatean. Donostia.
  - **Xabier Urmeneta**. Psikologoa. Gipuzkoako Aldundia. Donostia.

### Batzorde Zientifikoa

- Presidentea: **Iñaki Markez**. Psikiatra. Osasun Mentalaren Elkarteko Zuzendaritza Batzordearen. Bilbo.
- Batzordeko kideak:
  - **Tiburcio Angosto**. Psikiatra. Vigoko Unibertsitate Ospitalea.
  - **Josep M. Comelles**. Psikiatra. Rovira i Virgili Unibertsitatea. Tarragona.
  - **Ana Conseglieri**. Psikiatra. Madril.
  - **Rafael Huertas**. Zientzia Ikerketen Goi Mailako Kontseilua. Madril.





- **Jose Antonio Intxauspe.** Psikiatra. Osasunbidea. Donostia. Osasun Mentalaren Elkarteko Zuzendaritza Batzordearen. Iruña.
- **Óscar Martínez Azumendi.** Psikiatra, AEN argitalpenen zuzendaria. Osakidetza. Bilbo.
- **Álvaro Múzquiz.** Psikiatra. Osakidetza. Donostia.
- **Norma Ormaechea.** Psikiatra. Osakidetza. Donostia.
- **Cándido Polo.** Psikiatra., Valencia.
- **Antonio Rey.** Psikiatra, Valencia.
- **Gabriel Roldán.** Psikologo klinikoa. Donostia.
- **Margarita Sáenz.** Psikiatra. Osakidetza. Gasteiz.
- **David Simón.** Psikiatra. Ourense.
- **Xabier Urmeneta.** Psikologoa. Gipuzkoako Aldundia. Donostia.
- **Olga Villasante.** Psikiatra. AENen Historia Ataleko presidentea. Madril.

#### Idazkari teknikoa

**Naiara Letamendia.** Publizitatean tituluduna. Donostia.

jornadashistoriaaen@gmail.com / 645 522 815 / Posta-kutxa: 845, 20080 Donostia.

#### Antolatzailea

**OME** (Osasun Mentalaren Elkarte).

**AEN** (Espainiako Neuropsikiatria Elkarte). Psikiatriaren Historiaren Atala.



#### Laguntzaileak

**Euskal Herriko Unibertsitateko Oinarrizko Psikologia Prozesuak eta Garapena Saila** (EHU).

**San Telmo Museoa** (STM).

**Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburua** (DSS2016).

**Maramara Taldea.** Hizkuntza-zerbitzuak. Itzulpena, zuzenketa eta interpretazioa.

**Donostiako Udala**

**Gipuzkoako Foru Aldundia.** Gizarte Politikako Departamentua





AEN-REN HISTORIA ATALAREN X. JARDUNALDIAK  
*Neuropsikiatriako Espainiako Elkarte (AEN), Osasun Mentalaren Profesionalak*  
**OSASUN MENTALAREN HISTORIAK GARAI BERRI BATERAKO**  
DONOSTIA, 2015eko AZAROAK 19, 20 eta 21